ONDARROAKO UDAL KIROLDEGIKO IGERILEKU KLIMATIZATUETAKO URAREN ANALISIA KANPOKO LABORATEGI BIDEZ EGITEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOAK, IGERILEKUEN IRIZPIDE TEKNIKO-SANITARIOAK EZARTZEN DITUEN 742/2013 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA.

ZERBITZUA 2026ko urtarrilaren 01etik 2027ko abenduaren 31ra emango da.

JARRAIBIDEA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

2.- ZERBITZUAK

3.-KONTRATUA GARATUKO DEN INSTALAZIOAK

4.- ZERBITZUEN EZAUGARRIAK.

4.1.-ANALISIEN EZAUGARRIAK

4.2.-ZERBITZUAK EMATEKO MODURA

5.- ENPRESAREN AURKEZPENA

6.-ERANSKINAK

6.1.- 2026ko eta 2027ko KIROLDEGIKO INSTALAZIOEN EGUTEGI/ORDUTEGIAK

GAIA: ONDARROAKO UDAL KIROLDEGIKO IGERILEKU KLIMATIZATUETAKO URAREN ANALISIA KANPOKO LABORATEGI BIDEZ EGITEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOAK, IGERILEKUEN IRIZPIDE TEKNIKO-SANITARIOAK EZARTZEN DITUEN 742/2013 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Definizioa: Udal-igerilekuko ur baldintzen analisia egiteko zerbitzua kontratatzea, 742/2013 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko. Bi igerileku-ontziz osatutako udal-igerileku estalia da. Egin beharreko lanak honako hauek izango dira Autokontrolerako Gidan ezarritako parametroak kuantifikatzeko.

Zehazki, hauek izango dira eman beharreko neurketak zerbitzu bakoitzean:

A) Igerileku-ontzi bakoitzeko uraren:
- Tenperatura.
- PH-a (pH-unitateak).
- Uhertasuna (UNF).
- Eroankortasuna (uS/cm)
- Hondar-kloro librea (CRL) (mg/l)
- Hondar-kloro konbinatua (mg/l)
- E. coli (ufc/100 ml)
- Pseudomona aeruginosa (ufc/100 ml)

B) Igerilekuko airearen:
- CO2.
- Hezetasun erlatiboa
- Giro-tenperatura

C) Instalazioen kanpoko airearen (kalean):
- CO2

CPV kodea	71900000-7 (laborategiko Zerbitzuak)

2.- ZERBITZUAK

Zerbitzu bakoitzaren neurketak hilabeteko azken astean egingo dira. Horrez gain, urtean zehar ezuztekorik gertatuz gero, aparteko neurketak eskatuko dira.

Ezustekoentzako zerbitzu batzuk aurrekusita daude.

URTEA	Gutxieneko zerbitzuak	Ezuztekoak	Gehieneko zerbitzuak
2026	12	2	14
2027	12	2	14
2028	12	2	14
2029	12	2	14
GUZTIRA	**48**	**8**	**56**

Laborategiak erabilitako analisi-metodo bakoitzaren prozedura baliozkotuak, Errege Dekretua 742/2013 egokituko dira, horrela esaten duelako:

9. artikulua. Laborategiak eta analisi-metodoak.
1. Igerilekuko uraren laginak aztertzeko laborategiek kalitatea bermatzeko sistema bat izan beharko dute ezarrita.
2. Baldin eta igerilekuko ur-laginetan determinazio analitikoak egiten diren laborategiek ez badute UNE EN ISO/IEC 17025 arauak egiaztatutako analisi-metodorik, gutxienez, izan beharko dituzte erabilitako analisi-metodo bakoitzaren prozedura baliozkotuak; hartara, parametro bakoitza lan-tarte egokian kuantifikatuko da I. eranskineko parametroko balioak betetzen direla egiaztatzeko, haien ziurgabetasuna eta detekzio- eta kuantifikazio-mugak zehaztuta.
3. Igerilekuko uraren kontroletan erabilitako kitek UNE-ISO 17381 araua beteko dute, hau da, «Uraren kalitatea. Ur-analisian erabiltzeko prest dauden entsegu-kitak erabiltzen dituzten metodoak hautatzea eta aplikatzea» edo, hori ezean, gutxienez, horrenbesteko osasunaren babes-maila bermatzen duen antzeko beste arau edo estandar bat.

3.-KONTRATUA GARATUKO DEN INSTALAZIOAK.

Zerbitzua Ondarroako Zaldupe Udal Kiroldegiko igerilekuaren instalazioetan emango da.

4.- ZERBITZUEN EZAUGARRIAK.

4.1.-ANALISIEN EZAUGARRIAK

Egin beharreko lanak honako hauek izango dira Igerilekuen Autokontrolerako Gidan ezarritako parametroak kuantifikatzeko.
Zehazki, hauek izango dira eman beharreko neurketak:

A) Igerileku-ontzi bakoitzeko uraren:
- Tenperatura.
- PH-a (pH-unitateak).
- Uhertasuna (UNF).
- Eroankortasuna (uS/cm)
- Hondar-kloro librea (CRL) (mg/l)
- Hondar-kloro konbinatua (mg/l)
- E. coli (ufc/100 ml)
- Pseudomona aeruginosa (ufc/100 ml)

B) Igerilekuko airearen:
- CO2.
- Hezetasun erlatiboa
- Giro-tenperatura

C) Instalazioen kanpoko airearen (kalean):
- CO2

4.2.-ZERBITZUAK EMATEKO MODUA

Laginak edota neurketak hilabete bakoitzeko azken astean hartuko dira.
Horrez gain, urtean zehar ezuztekorik gertatuz gero, aparteko neurketak eskatuko dira.
Kontratuaren xede diren zerbitzuak beren berezitasunen arabera emango dira. Egindako analisien emaitzak posta elektronikoz bidali beharko zaizkio kontratuaren arduradunari, gehienez ere laginak edota neurketak hartu eta 5 eguneko epean.


5.ENPRESAREN AURKEZPENA.

Udalak garrantzitsutzat jotzen du enpresaren funtzionamendua ezagutzea. Helburu horretarako, eta helburuak lortzeko balio digun informazioa bakarrik eskuratuz, erakunde esleipendunak erakundearen aurkezpen txiki bat egin beharko du eta elementu hauek jaso beharko ditu: egoitza soziala, burutzen dituen bestelako jarduerak, Udalarekin harremanetan egongo diren pertsonak, edo garrantzitsutzat jotzen dituen beste batzuk

6.-ERANSKINAK

6.1.- 2026ko KIROLDEGIKO INSTALAZIOAREN EGUTEGI/ORDUTEGIA

2026ko Zaldupe Udal Kiroldegiko aurreikusitako egutegia. Lauki beltzez dauden egunak ez da egongo zerbitzurik.



Ondarroan, sinadura digitalaren datan

Kontratuaren arduraduna

Antxon Alberdi Barrutia

ANTXON ALBERDI BARRUTIA - 44346213M

Digitally signed by ANTXON ALBERDI BARRUTIA - 44346213M
Date: 2025.11.25 09:43:10 +01'00'